## JUZTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-5130

EBAZPENA, 2004ko irailaren 14koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, «Centros Privados de Enseñanza Reglada de la CAPV»aren Hitzarmen Kolektiboa Interpretatzeko Batzorde Mistoaren 2004ko uztailaren 9ko Erabakiaren I. eta II. eranskinak erregistra eta argitara daitezela xedatzen duena.

8602372 C.C.O.C. espedientea.

Aipatutako espedientea ikusi da, «Centros Privados de Enseñanza Reglada de la CAPV» enpresaren Hitzarmen Kolektiboa Interpretatzeko Batzorde Mistoaren erabakiari buruzkoa.

AURREKARIAK

Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa Interpretatzeko Batzorde Mistoaren erabakiaren I. eta II. eranskinen testua, 2004ko uztailaren 9an batzorde negoziatzaileak sinatua, 2004ko uztailaren 14an iritsi zen Lan Zuzendaritzara.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Beharrezko izapideak egin ondoren, bidezkoa da Hitzarmen Kolektiboa Interpretatzeko Batzorde Mistoaren erabakiaren I. eta II. eranskinak erregistratzea eta argitaratzea, honako lege-xedapenek ezarritakoaren arabera: martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 90. artikulua, maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 2ko 39/1981 Dekretua eta hori garatzen duen 1982ko azaroaren 3ko Agindua, eta Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatu zuen otsailaren 12ko 44/2002 Dekretua.

Adierazitako lege-xedapenak eta ezarpen orokorreko gainontzekoak ikusita, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariak hau

EBATZI DU:

1.– Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Organo Nagusian erregistratzeko agindua ematea, eta Batzorde Negoziatzaileari jakinarazi.

2.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2004eko irailaren 14a.

Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-5130

RESOLUCIÓN de 14 de septiembre de 2004, del Director de Trabajo y Seguridad Social por la que se dispone el registro y publicación de los Anexos I y II del Acuerdo de 9 de julio de 2004 de la Comisión Interpretativa Mixta del Convenio Colectivo de «Centros Privados de Enseñanza Reglada de la CAPV».

Expediente C.C.O.C. 8602372.

Visto el expediente referenciado, relativo al Acuerdo de de la Comisión Interpretativa Mixta del Convenio Colectivo de «Centros Privados de Enseñanza Reglada de la CAPV», y

Resultando: que con fecha 14 de julio de 2004 tuvo entrada en esta Dirección de Trabajo y Seguridad Social el texto de los Anexos I y II del acuerdo de la Comisión Interpretativa Mixta del Convenio Colectivo citado, suscrito el 9 de julio de 2004 por la Comisión Negociadora del mismo.

Considerando: que de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 90 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores aprobado mediante Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, en relación con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo, el Decreto del Gobierno Vasco 39/1981, de 2 de marzo y la Orden de 3 de noviembre de 1982 que lo desarrolla, así como el Decreto 44/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la Estructura Orgánica del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y tras los trámites pertinentes, procede el registro y publicación de los Anexos I y II del Acuerdo de la Comisión Interpretativa Mixta citado Convenio Colectivo.

Vistos los preceptos legales citados y demás de general aplicación, el Director de Trabajo y Seguridad Social,

RESUELVE:

1.– Ordenar su inscripción en el Órgano Central del Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a la Comisión Negociadora.

2.– Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de septiembre de 2004.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKASKUNTZA ARAUTUKO IKASTETXE PRIBATUEN HITZARMEN KOLEKTIBOA INTERPRETATZEKO BATZORDE MISTOA

I. ERANSKINA

Batzorde honek aho batez onartzen du itunpeko ikastetxeetako eskubide sindikalen gainean Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza pribatuko sindikatuen eta patronalen artean lortutako akordioa.

ITUNPEKO IKASTETXEETAKO ESKUBIDE SINDIKALEN GAINEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKASKUNTZA PRIBATUKO SINDIKATUEN ETA PATRONALEN ARTEAN LORTUTAKO AKORDIOA

Akordio honen helburua hau da: langileen ordezkariek eta Enpresa Batzordeko kideek ordezkaritza lanak betetzeko dituzten orduak erabiltzeari buruzko gaiak arautzea (Arautako irakaskuntzako ikastetxe pribatuen I. hitzarmen kolektiboko 78. eta 79. artikuluak), beti ere aurreko 1996ko otsailaren 14ko Akordioan ezarritako irizpideen ildotik. Hori Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuen hitzarmen kolektiboaren barruan –eskubide sindikalei buruzko III. kapituluan– jasota dago.

Hezkuntza-itunen bitartez egindako finantzazioa kontuan hartuta, akordio hau izenpetzen duten alderdiek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen diote, ezen, aurreko akordioarekin jarraituz, ahalik eta modu egoki eta bidezkoenean behar diren fondoak presta ditzala, akordio honetan aipatzen diren sindikatuetako kide iraunkorrak finantzatzeko.

Aipatutako helburuak lortzeko, batetik, patronalak eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Irakaskuntza Pribatuaren Hitzarmen Kolektiboa Interpretatzeko Bitariko Batzordean ordezkotza duten sindikatuek hau

ERABAKI DUTE:

*Lehenengoa.–* Akordio honek Euskal Autonomia Erkidegoko Irakaskuntza Pribatuko Hitzarmen Kolektiboan sartuta dauden itunpeko ikastetxe guztietan izango du eragina, nola itun osoak dituztenetan, hala partezko itunak dituztenetan, nahiz horien ordezkariengan.

Aipatutako eremuan bakarra izango da. Izenpetzen den egunean jarriko da indarrean eta lau urteko iraupena edukiko du; luzatu egin ahalko da, alderdiek kontrakorik adierazi ezean.

COMISIÓN INTERPRETATIVA MIXTA DEL CONVENIO DE CENTROS PRIVADOS DE ENSEÑANZA REGLADA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

ANEXO I

Esta Comisión aprueba por unanimidad el nuevo acuerdo sobre derechos sindicales en Centros Educativos Concertados alcanzado entre las organizaciones sindicales y patronales de la enseñanza privada de la Comunidad Autónoma del País Vasco,

ACUERDO SOBRE DERECHOS SINDICALES EN CENTROS EDUCATIVOS CONCERTADOS ALCANZADO ENTRE LAS ORGANIZACIONES SINDICALES Y PATRONALES DE LA ENSEÑANZA PRIVADA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

El presente Acuerdo, tiene como objetivo el regular, dentro del Capítulo III sobre Derechos Sindicales del Convenio Colectivo de Centros Privados de Enseñanza Reglada de la Comunidad Autónoma del País Vasco, respetando los criterios establecidos en el anterior Acuerdo existente al respecto de 14 de febrero de 1996, cuestiones referentes a la utilización del crédito de horas que los Delegados/as de Personal, y miembros de Comités de Empresa tienen para el ejercicio de sus funciones representativas (artículos 78 y 79 del I Convenio Colectivo de Centros Privados de Enseñanza Reglada).

Teniendo en cuenta la financiación vía Conciertos Educativos, las partes firmantes del presente Acuerdo instan al Departamento de Educación del Gobierno Vasco para que, dando continuidad al acuerdo anterior, provea los fondos necesarios, de la forma más equitativa posible, para la financiación de los Permanentes Sindicales que en el presente se señalan.

Para alcanzar los fines señalados, tanto la parte Patronal como Sindical representada en la Comisión Interpretativa del Convenio Colectivo de la Enseñanza Privada del País Vasco

ACUERDAN:

*Primero.–* El presente Acuerdo afecta a todos los Centros Concertados incluidos en el Convenio Colectivo de Centros Privados de Enseñanza Reglada de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con Conciertos tanto plenos como parciales, y a los representantes de los mismos.

Será único en el ámbito señalado, entrando en vigor en la fecha signataria, con un ámbito temporal de cuatro años, prorrogable salvo denuncia de las partes.

*Bigarrena.–* Ordezkarien orduak laga eta arautzea.

Akordioan zehaztutako sektorean %10eko ordezkotza duten sindikatuetako langileen ordezkari bakoitzak edo Enpresa Batzordeko kide bakoitzak, sindikatu-lanetarako dituen orduetatik bi (2) utzi egingo ditu hilero, sindikatuek izendatutako kide iraunkorrei metatzeko; horrela, kide iraunkorrak ikastetxeetan dituzten eginbeharrez libratu egingo dira.

Batzar arruntetara joateko, erakunde izenpetzaileetakoak diren ordezkariek eta Enpresa Batzordeko kideek, hilero arratsalde bat edo goiz bat libre hartuko dute. Batzar horiek laneko desplazamendutzat hartuko dira. (Ikastetxeen barne antolaketari begira, sindikatuek lurralde historiko bakoitzeko batzarren egutegia jakinaraziko dute.) Lurralde Batzorde Sektorialekoak diren Enpresa Batzordeko kideek edo ordezkariek batzar bat gehiago edukiko dute. Sindikatu-prestakuntzarako ikastaroetara joateko, sindikatu bakoitzak urteko hiru lanaldi hartzeko eskubidea izango du, 15 afiliatuko edo frakzioko. Ikastaro horietan parte hartzeko asmoa 15 egun lehenago jakinarazi beharko zaio Zuzendaritzari, eta, ahal den neurrian, jarraian hartu beharko dira egunak. (Egun horiek ezingo dira izan ebaluazio edo azterketakoak; hori dela eta, ikastetxeek azterketa eta ebaluaziorako egutegia emango dute jakitera.)

*Hirugarrena.–* Akordio honen eraginpean dauden sindikatuek, gehienez ere, 12 liberatu izenda ditzakete, sindikatu-lanak jarraiki egin ditzaten.

Eremuaren barruan sektorean duten ordezkotzaren arabera izendatuko da kide iraunkorren kopurua sindikatu izenpetzaileen artean.

Horretarako, urte bakoitzeko ekainaren 30eko datu ofizialak hartuko dira kontutan, eta ateratzen dena hurrengo ikasturterako izango da, irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaituko delarik.

Izendapenak uztailean egin beharko dira (halabeharrez ez bada), eta patronala, ikastetxeak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila jakinaren gainean jarri beharko dira.

Izendapen horiek urtebeterako izango dira eta sindikatu batek liberatu bat eginkizun horietarako ez badu berriz izendatzen, ikastetxeko ohiko zereginetara itzuliko da izendatua izan zenean zituen baldintza berekin, kontrakorik erabakitzen ez bada behintzat.

Ordezkari horiek, ikastetxeetan dituzten lanez libraturik egongo baitira, ikastetxeko nominan jarraituko dute ondorio guztietarako, eta izendapenaren unean egiaztatzen duten ordainketa jasoko dute.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari behar diren fondoak prestatzeko eskatzen zaio eta izendepe-

*Segundo.–* Cesión y regulación de horas de delegados.

Cada delegado/a de Personal ó miembro de Comités de Empresa, perteneciente a los Sindicatos con el 10% de representación en el Sector definido por el Acuerdo, cederá un total de dos (2) horas mensuales de su crédito horario sindical, para que se acumulen en los Permanentes designados por las Organizaciones Sindicales, de forma que puedan quedar liberados de sus tareas en los Centros.

Para la asistencia a reuniones ordinarias, los Delegados/as y miembros de Comités de Empresa pertenecientes a las Organizaciones Signatarias librarán una tarde o una mañana cada mes, teniendo estas reuniones carácter de desplazamiento de trabajo. (A efectos de organización interna de los Centros, los Sindicatos comunicarán el calendario de reuniones de cada Territorio Histórico). Los Delegados/as o miembros de Comité de Empresa que pertenezcan al Comité Provincial Sectorial, tendrán otra reunión más. Para asistencia a Cursillos de Formación Sindical, cada Sección Sindical tendrá derecho a tres jornadas anuales por cada 15 afiliados/as o fracción. La asistencia a estas jornadas deberá de comunicarse a la Dirección con 15 días de antelación, y deberán, en principio, ser continuadas. (Estos días no podrán coincidir con días de exámenes o evaluación, y para ello los Centros facilitarán los calendarios de los mismos).

*Tercero.–* La parte sindical vinculada por el presente acuerdo, podrá designar hasta un total de 12 liberados para su dedicación permanente a tareas sindicales.

La asignación del número de permanentes entre las Organizaciones Sindicales signatarias se efectuará en base a su representatividad en el Sector incluido en el ámbito.

A estos efectos, se considerarán los datos oficiales a fecha 30 de junio de cada año, siendo su resultante de aplicación para el curso siguiente, iniciándose el 1 de septiembre y finalizando el 31 de agosto.

Los nombramientos deberán efectuarse (salvo imposibilidad manifiesta) durante el mes de julio, debiendo ser puestos en conocimiento de la parte Patronal, los Centros correspondientes y el Departamento de Educación.

Dichos nombramientos tendrán carácter anual, y cuando un liberado/a no vuelva a ser nombrado por su Organización Sindical para esta función, regresará a sus funciones habituales en el Centro y en las mismas condiciones que cuando fue nombrado, salvo acuerdo en contrario.

Estos delegados/as, liberados de sus tareas laborales en el Centro, seguirán en la nómina del Centro a todos los efectos, percibiendo la remuneración que acrediten en el momento de su designación.

Se insta al Departamento de Educación, para la previsión necesaria de fondos, y para que una vez tenga co-

nen berri eduki ondoren, sindikatuetako kide iraunkorren kostua ordaintzeko adina fondo transferitu diezaiela ikastetxeei.

*Laugarrena.*– Akordio hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari igorriko zaio, bere gain har dezan eta sindikatuetako 12 kide iraunkorren kostua finantza dezan. Kostutzat hartuko dena nomina gordina eta Gizarte Segurantzarekiko kotizazioa izango da, irakaskuntzako ihadueragatiko plusa (ordezkatua) eta gehigarria barne.

Horretarako, sindikatuek sindikatu bakoitzeko liberatuen izendapenarekin batera, kasuan kasuko ikastetxeen egiaztagiria bidali beharko dute, hain zuzen, aipatutako kontzeptuak adieraziko dituena.

*Bosgarrena.*– Aplikazioa.

Akordio hau, berau izenpetzen duten sindikatuei aplikatuko zaie. Aplikaziorako, akordioaren indarraldian sektorean %10a lortzen duten sindikatuek, testu honetan jasotako formula hartu ahal izango dute, 3. puntuan jarritako ildotik.

Gehigarrizko klausula.– Akordio honek, dagokion ordu-lagapenarekin batera, onartzen denean eta Hezkuntza Sailak finantzaziorako bere gain hartzen duenean izango du balioa.

ERANSKINA: ITUNPEKO IKASTETXEETAKO ESKUBIDE SINDIKALEI BURUZKO AKORDIOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAKO IKASTETXE PRIBATUEN PATRONALEK ETA SINDIKATUEK HARTUTAKOA SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAREN ESPARRUAN

Akordioa sinatu duten aldeek sindikatuetako kide iraunkorren honako banaketa onartzen dute:

| | |
|---|---|
| ELA: | 9 kide iraunkor |
| STEE-EILAS: | 2 kide iraunkor |
| CCOO: | 1 kide iraunkor |

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKASKUNTZA ARAUTUKO IKASTETXE PRIBATUEN HITZARMEN KOLEKTIBOA INTERPRETATZEKO BATZORDE MISTOA

II. ERANSKINA

Batzorde honek aho batez erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoko arautútako irakaskuntzako ikastetxe pribatuen I. hitzarmen kolektiboko I. eranskina aldatzea, bertan transkripzio huts bat egin zelako. Beraz, «ANTZINATASUNA 3 TALDEA» izeneko taulan, «goi-mailako teknikariari» dagokion atalean, %12,11 jartzen duen tokian %22,72 jarri behar du.

nocimiento de los nombramientos, transfiera a los centros correspondientes los fondos suficientes para cubrir el costo de dichos Permanentes Sindicales.

*Cuarto.*– El presente Acuerdo se elevará al Departamento de Educación para su asunción, y para que provea la financiación del coste de estos 12 Permanentes Sindicales, entendiéndose como tal el importe de la nómina bruta más la cotización a la Seguridad Social, incluidos el suplemento y el plus de actividad docente (suplido).

A tal efecto, la parte sindical remitirá junto con la designación de los liberados/as correspondientes a cada Organización Sindical, certificación expedida por los Centros Educativos correspondientes, en la que consten los conceptos citados.

*Quinto.*– Aplicación.

El presente Acuerdo será de aplicación a las Organizaciones Sindicales que suscriban el mismo. A los efectos de su aplicación práctica, las Organizaciones que en el período de vigencia alcanzaran el 10% en el sector podrán acogerse a la fórmula recogida en el presente texto en la línea marcada en el punto tercero.

Cláusula Adicional.– El presente Acuerdo, con la correspondiente cesión del crédito horario, tendrá validez cuando sea aprobado y asumido en su financiación por el Departamento de Educación.

ANEXO AL ACUERDO SOBRE DERECHOS SINDICALES EN LOS CENTROS EDUCATIVOS CONCERTADOS ALCANZADO ENTRE LAS ORGANIZACIONES SINDICALES Y PATRONALES DE CENTROS PRIVADOS DE ENSEÑANZA REGLADA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO EN EL ÁMBITO DEL CONVENIO COLECTIVO DEL SECTOR

Las partes firmantes del acuerdo aceptan la siguiente distribución de permanentes sindicales:

| | |
|---|---|
| ELA: | 9 permanentes sindicales |
| STEE-EILAS: | 2 permanentes sindicales |
| CCOO: | 1 permanente sindical |

COMISIÓN INTERPRETATIVA MIXTA DEL CONVENIO DE CENTROS PRIVADOS DE ENSEÑANZA REGLADA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

ANEXO II

Esta Comisión acuerda por unanimidad modificar, para subsanar el error de trascripción cometido, el Anexo I del I Convenio Colectivo de Centros Privados de Enseñanza Reglada de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la tabla referida a la «ANTIGÜEDAD GRUP0 3» en el apartado referente al «Técnico superior». Donde dice 12,11% debe decir 22,72%.